# LGTBIfobiaren kontrako Nazioarteko Eguna

Baztango Udala Foru Gobernuak maiatzak 15eko osoko bilkuran LGTBIfobiaren kontrako Nazioarteko Eguna dela eta onartutako adierazpen instituzional honetara atxikitzen da:

"Maiatzaren 17an, LGTBIfobiaren aurkako Nazioarteko Egunean, LGTBI+ pertsonentzat garrantzi handia duen mugarri historiko bat gogorarazten da. 1990ean, Osasunaren Mundu Erakundeak gaixotasunen nazioarteko sailkapenetik kendu zuen homosexualitatea. Hori aurrerapauso nabarmena izan zen LGTBI+ pertsonen duintasuna eta eskubideak onartzeko bidean. Transexualitatea, berriz, 2022ra arte ez da despatologizatu. Izan ere, urte horretan eskuliburu hori azkenekoz eguneratu zen arte, nahasmendu mentalen atalean jasota zegoen.

Horregatik, gaurko egunean, Nafarroako Gobernuak erabat arbuiatu nahi du LGTBIfobia dakarren edozein adierazpen, eta berresten du LGTBI+ pertsonen eskubideen defentsan duen konpromisoa.

Azken hamarkadetan, aurrerapen handiak egin dira LGTBI+ eskubideen arloan: LGTBI+ pertsonen eskubideak aitortzen eta bermatzen dituzten zenbait lege onetsi dira, bai Nafarroan, bai Espainian, eta horrekin batera gizartean aldaketak eta aurrerapenak egin dira. Hori guztia erakundeen eta kolektiboen lan koordinatuaren eta konpromisoaren emaitza da. Izan ere, erakunde eta kolektibo horiei aitortu eta eskertu behar zaie lan nekaezina egin dutela LGTBI+ pertsonen eskubideen alde.

Hala ere, hainbat lorpen izan badira ere, egungo testuingurua erronka handia da, kezkaz ikusten ari baikara nola ari diren areagotzen azken urte hauetan gorroto-delituak eta diskurtso LGTBIfobikoak, erdietsitako aurrerapen eta eskubideak zalantzan jartzen dituztenak. Adibidez, azken bi aste hauetan gutxienez bi eraso homofobo izan dira, eta, jakina denez, indarkeria LGTBIfobikoaren adierazpen horiek icebergaren punta baino ez dira.

Nafarroako Gobernuarentzat, LGTBI+ eskubideak giza eskubideak dira, eta halakotzat babestu eta defendatu behar dira. Ildo horretan, Nafarroako Gobernuak, adierazpen honen bidez, indarkeria- eta diskriminazio-adierazpen oro gaitzesten du, eta berresten du konpromisoa duela LGTBI+ arloko politika publikoak egiteko, LGTBI+ eskubideak bermatu eta sustatzeko eta Nafarroa erkidego askotarikoagoa eta berdinzaleagoa bilakatzeko."

Era berean, Baztango Udalak LGTBI pertsonen berdintasuna sustatzeko lanean jarraitzeko konpromisoa hartu du, heteroarauari eta sexu-genero sistemari aurre egiten dioten praktikak dituzten pertsonen ikusgarritasuna sustatzen eta erreferenteak eskaintzen.

# Día Internacional de la lucha contra la LGTBIfobia

El Ayuntamiento de Baztan se adhiere a esta declaración institucional aprobada por el Gobierno Foral en el pleno del 15 de mayo con motivo del Día Internacional contra la LGTBIfobia:

"El 17 de mayo Día Internacional contra la LGTBIfobia se conmemora un hito histórico de gran relevancia para las personas LGTBI+. En 1990 la Organización Mundial de la Salud retiró la homosexualidad de su clasificación internacional de enfermedades, lo que supuso un paso adelante en el reconocimiento de la dignidad y los derechos de las personas LGTBI+. La despatologización de la transexualidad ha tenido que esperar a la última actualización de este mismo manual en el año 2022, en el que seguía recogida dentro del apartado de trastornos mentales. Por ello, en una fecha como esta, el Gobierno de Navarra quiere mostrar su firme rechazo ante cualquier expresión de LGTBIfobia, así como su compromiso en la defensa de los derechos de las personas LGTBI+.

Estas últimas décadas se han dado grandes avances en materia de derechos LGTBI+: se han aprobado leyes que reconocen y garantizan derechos a las personas LGTBI+ tanto en Gobierno de Navarra como en el Gobierno de España y esto ha ido acompañado también de cambios y avances a nivel social. Todo ello, fruto del trabajo coordinado y del compromiso tanto de las instituciones como de los colectivos, a los que hay que reconocer y agradecer su incansable labor en defensa de los derechos de las personas LGTBI+.

Sin embargo, y pese a los logros conseguidos, el contexto actual supone un reto importante ya que en los últimos años asistimos a un preocupante aumento de delitos de odio, así como de discursos LGTBIfóbicos que buscan cuestionar los avances y derechos conquistados. Como ejemplo, hemos tenido que lamentar al menos dos agresiones homófobas en las últimas dos semanas y como sabemos, estas expresiones de violencia LGTBIfóbica son solo la punta del iceberg.

Para el Gobierno de Navarra los derechos LGTBI+ son derechos humanos y como tal deben ser protegidos y defendidos. En este sentido el Gobierno de Navarra, a través de esta Declaración, quiere manifestar su rechazo ante cualquier expresión de violencia y discriminación y reafirmar su compromiso con las políticas públicas LGTBI+, la garantía y promoción de los derechos LGTBI+ y su contribución para hacer de Navarra una Comunidad más diversa e igualitaria."

Así mismo, el Ayuntamiento de Baztan se compromete a seguir trabajando para promover la igualdad de las personas LGTBI, promoviendo la visibilidad de personas y referentes de las personas que tienen prácticas que combaten la heteronormatividad y el sistema sexo-género.